



## Ebazpena, IVAPeko zuzendariarena, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko (IVAP) Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duena

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluko 1. puntuko lehenengo paragrafoak ezartzen duenez, administrazio publikoetako organoek eta dirulaguntzak ematen dituen edozein erakundek Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egin beharko dute aurrez. Bertan, hura aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak zehaztuko dira, baita horiek lortzeko beharko diren epeak, kostuak eta finantzaketa-bitartekoak ere. Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak, 6. artikuluko 1. puntuan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionala osatzen duten erakunde autonomoek garatzen duten dirulaguntza jarduera plan estrategiko baten bidez planifikatu beharko dute aldez aurretik, eta garatzen dituzten plan horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratu beharko dira.

IVAPen Plan Estrategikoa legegintzaldi osorako da, eta urteroko kudeaketa-planetan garatzen eta zehazten da. Plan Estrategikoak helburu eta ekintza batzuk ezartzen ditu, eta horietako batzuek dirulaguntza izaera daukate.

Hori dela eta, IVAPen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa IVAPen Plan Estrategikoan jasotzea dirulaguntza-ekintzak biltzea baino ezin da izan.

Horregatik guztiagatik, honako hau **ebazten dut**:

**Artikulu bakarra.** IVAPen 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratzea. Plan hori Ebazpen honen [1. eranskinean](#) dago jasota.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

### Nagore Alberdi Berasaluze

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Koordinazio eta Kudeaketako idazkaria  
IVAPen Zuzendaritza hutsik dagoelako sinatzen du (maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 6.3 art. eta 8.2.f) art.)





## I. eranskina

# Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren (IVAP) 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

---

## 1. Arau-esparrua eta oinarrizko printzipioak

### a) Arau-esparrua

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO) zioen azalpenean, oro har, eta, zehazki, 8. artikuluan, ezartzen du administrazio publikoetako organoek eta dirulaguntzak ematen dituzten erakunde guztiek dirulaguntzen plan bat egin behar dutela aurrez. Bertan, hura aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak zehaztuko dira, baita horiek lortzeko beharko diren epeak, kostuak eta finantzaketa-bitartekoak ere. Planak aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko ditu, eta publizitatearen, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bermatuko ditu, bai eta helburuen eraginkortasunaren eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientziaren printzipioak ere.

Era berean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (aurrerantzean, DAEL), DLOk adierazitakoaz gain, xedatzen du dirulaguntzen plan estrategiko horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratu beharko direla.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa denez, Honako Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau egin du, DLOn eta DAELn ezarritakoari jarraikiz.

### b) Izaera juridikoa

2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (aurrerantzean, DPE) kudeaketa-tresna programatikoa da, ez arauemailea. Beraz, ez dakar eskubide edo betebeharririk onuradun izan daitezkeenentzat, eta berori onartzeak ez dakar eskubide edo betebeharririk Administrazioarentzat. Eraginkorra izan dadin, hainbat dirulaguntza lerro jarriko dira martxan, besteak beste, ekitaldi bakoitzean dagoen aurrekontu-erabilgarritasuna kontuan hartuta.

Era berean, plan hau IVAPen politika antolatzeko tresna bat da; IVAPen 2025-2028 aldirako Plan Estrategikoan (aurrerantzean, PE) txertatzen dena. Plan hori aurrerago aipatzen da, eta dirulaguntzen bidez, gizartearen intereserakoa edo gizarteak erabiltzekoa den jarduera bat sustatzea du helburu. Alde horretatik, Planaren indarraldian lortu nahi diren interes publikoen eta erabilgarri dauden baliabideen azterketa kontuan hartuta, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handituko direla bermatzeko, beretzat gordetzen du DPEak barne hartzen dituen dirulaguntzen



prográmetan komenigarri jotzen dituen aldaketak egiteko eskubidea, baldin eta hala justifikatzen badute DPEaren urteroko berrikusketek, dirulaguntzen programa bakoitzean ezarritako adierazleak bete diren egiaztatze azterketek edo bestelakoek.

Bestalde, ikusten bada plana sustatu duen erakunde autonomoak eginiko jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak igorritako txostenen emaitzetan dirulaguntza batzuk ez direla iritsi aurreikusitako helburuen lorpen-mailara edota inbertitutako baliabideei dagokien mailara, aldatu, eta horien ordez eraginkorragoak eta efizienteagoak diren beste batzuk ezarriko dira, edo, hala badagokio, kendu egingo dira.

### c) Oinarrizko printzipioak

Dirulaguntzen erregulazio juridikoak jarduteko printzipio orokor batzuk ezartzen ditu. Printzipio horiek DPEaren funtsezko osagaiak dira, eta dirulaguntzen kudeaketa gidatu behar dute.

1. Dirulaguntza bakoitza erregulatzeko oinarrietan, adierazi behar da dirulaguntza zein plan estrategikotan kokatzen den eta helburuak lortzen nola laguntzen duen. Bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik behar den beste dirulaguntza bat, planean aurreikusita egon ez arren, eta nola eragiten dion horrek plana betetzeari.
2. DAELak erregulatu dituen dirulaguntzak kudeatzeko eta emateko, honako printzipio hauei jarraitu behar zaie:
  - a. Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
  - b. Dirulaguntza ematen duen administrazioak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
  - c. Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.
3. Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa zein gutxitutako kolektiboen berdintasun-printzipioa bete daitezten, ikuspegi interseksionala eta, bereziki, genero ikuspegia hartuko dira aintzat dirulaguntzen diseinuan, plangintzan, kudeaketan eta emate-prozesuan. Hala, ezin izango da inolako dirulaguntzarik eman sexu-arrazoiengatik diskriminatzaileak diren jardueretarako.
4. Ingurumen- eta natura-ikuspegia hartuko da aintzat dirulaguntzen diseinuan, plangintzan, kudeaketan eta emate-prozesuan, Euskadiko natura-ondarea kontserbatu dadin sustatzeko eta ingurumen-helburuei kalterik ez egiteko.



5. Hizkuntza-irizpideak hartuko dira aintzat dirulaguntzen diseinuan, plangintzan, kudeaketan eta emate-prozesuan, hizkuntza-normalizazioan sakondu eta euskararen erabilera zabaltzeko xedearekin.

Printzipio horiek guztiak IVAPen dirulaguntza ildo eta programa guztiei aplikagarriak zaizkie.

## 2. Helburu orokorrak

Aurreko guztia aintzat hartuta, DPE egitean, honako helburu orokor hauek lortu nahi dira:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan jasotako lege-agindua betetzea. Agindu horren bitartez, administrazio publikoen mendeko organo eta erakundeek beren plan estrategikoa onartu behar dute dirulaguntzak eman baino lehen.
- Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluko 1. puntuan xedatutako agindua betetzea. Lege horrek, DLOak xedatutakoaz gain, garatzen diren DPE horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratzeko agintzen du.
- IVAPek dirulaguntzen arloan duen plangintza estrategikoa zehaztea, sustapen-jarduera horretatik bereizitako dokumentu batean, eta ez soilik erakunde osoaren plan estrategikoan. Plan honetan biltzen dira IVAPek bere jarduera-arlo guztietan kudeatzen dituen dirulaguntza eta laguntza-lerro guztiak.
- IVAPen dirulaguntza arloko jardueren programak, helburuak eta aurrekontu-adierazleak dokumentu bateratu batean zehaztea, eta jarduera horien kostuen berri ematea.

## 3. Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren egitura eta aplikazioa

DPE honek barne hartzen ditu IVAPek Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bateginak (irailaren 21eko 3/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa) aitortzen dion eskumenaren bitartez kudeatzen dituen dirulaguntzak. Araudi horren arabera, IVAP administrazio-izaerako erakunde autonomoa da, Lehendakaritza Sailari atxikia (gaur egun Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila).

### IVAPen helburuak eta egitura

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bateginaren arabera, honako hauek dira IVAPen helburuak:



- Euskal Administrazio Autonomoak funtzionarioak eta kontratatu beharreko langileak hautatzea, eta alor horretan bere jarduketak Lehendakaritza Saileko zerbitzu eskudunekin koordinatzea.
- Funtzionarioak hautatzea beste administrazio publikoren batek edo ordenamendu juridikoak aginduta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta beste edozein administrazio publikotako edo ordenamendu juridikoko funtzionarioen edo kontratatuaren prestakuntza eta trebakuntza.
- Lankidetzaren sustatzea lurralde historikoekin, udalekin eta Euskadiko Toki Administrazio gainerako entitateekin, langileen prestakuntzan eta trebakuntzan.
- Euskara herri-administrazioan txertatzea, zabaltzea eta aplikatzea eta normalizatzea, bai eta administrazio-hizkera finkatzea ere, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean xedatutakoa betetzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen berezitasun juridiko, finantzario eta estatistikoak ikertzea, irakastea eta zabaltzea.
- Administrazio-zientzia ikertzea, irakastea eta zabaltzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioetan ezartzea.
- Trukeak eta hitzarmenak egitea Espainiako estatuko zein atzerriko antzeko entitateekin.

Era berean, IVAPen egitura arautzen duen maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak erakunde autonomo horren unitatekako egitura ezartzen du, bai eta unitate haietako bakoitzari erakundearen helburuak lortzeko dagozkion betekizunak ere.

### **Plan Estrategikoaren egitura berria: hiru dimentsio estrategiko**

IVAPen 2025-2028 aldirako Plan Estrategikoak (PE aurrerantzean) hiru dimentsio lantzen ditu: zeharkako dimentsioa, dimentsio espezifikoak eta dirulaguntzen dimentsioa.

- **Zeharkako dimentsioak** IVAP osoari eragiten dio, eta bere helburu nagusia da Erakundearen funtzionamendua hobetzea, ikuspegi orokor batetik. Dimentsio honek erakundea barrutik hobetzea du helburu; hau da, eraginkortasuna, kohesioa eta koordinazioa sustatzen ditu, IVAPen alderdi guztietan eragiteko. Zeharkako dimentsio honek zazpi lan-lerro ditu: *1. Talentua sustatzea ingurune osasungarri eta produktibo batean, 2. Antolamendu-eraldaketa eta kudeaketa berritzailea, 3. Erabiltzaileengan ardaztutako zerbitzuak, 4. Komunikazio eraginkorra, 5. Eraldaketa digitala eta prozesuen modernizazioa, 6. Euskararen erabilera sustatzea eta 7. Berdintasunaren sustapena.*
- **Zerbitzuen dimentsioak**, bestalde, beste prisma bat hartzen du; hain zuzen, IVAPeko zerbitzu bakoitzaren ikuspegi zehatza. Izan ere, erakundearen helburuak IVAPen egitura dekretuan xedatutakoak, hain zuzen erakundeko zerbitzu ezberdinen artean banatzen dira, eta hortik sortzen dira zerbitzu bakoitzaren funtzioak. Horrela, zerbitzu bakoitza helburu zehatzak betetzera bideratzen da. PEaren dimentsio honetan, IVAPeko zortzi zerbitzuetako bakoitzak bere helburu eta estrategia



espezifikoak izango ditu; zerbitzu bakoitzaren funtzionamendua eta emaitzak hobetzeko eta, horrela, IVAPen misioa betetzeko.

- **Dirulaguntzen dimentsioak**, azkenik, IVAPek kudeatzen dituen dirulaguntzen lerroak definitzen ditu, bere lehentasun estrategikoekin lerrokatuta.

PEa horrela eraiki da, erakundea barrutik kanpora hobetzeko xedez. Pertsonak oinarritzat hartuta, zerbitzu publiko emankor zein eraginkorrak eskaintzea da jomuga. **PEak**, halaber, **IVAPen misioa, ikuskera eta balioak ere berritu ditu**, testuinguru berrietara egokitzeko eta erakundearen erronkei aurre egiteko. Horrela, egitura berri horrek hainbat aurrerapen dakartza:

- Helburuen eta ekintzen arteko koherentzia handiagoa, IVAPen ekimen guztiek bere misioan laguntzen dutela ziurtatuz.
- Efektibo gehiagoren ebaluazioa eta jarraipena, dimentsio bakoitzerako adierazle espezifikoekin.
- Baliabide publikoen erabilera optimizatzea, haien eraginkortasuna eta gardentasuna bermatuz.

### **Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren egitura: Plan Estrategikoarekin bat datorren dirulaguntzen estrategia**

DPE bat dator PEaren egitura berriarekin, eta dirulaguntzen dimentsioan txertatzen du. Alde horretatik, egitura argia du, IVAPek kudeatutako laguntza guztiak biltzen dituzten bi ardatz estrategikotan oinarritua:

- 1. Prestakuntza estrategikoa, Administrazio Publiko eraginkor batean oinarrituta:** ardatz honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa profesionalizatzea sustatzen du, administrazioa osatzen duten pertsonak prestatuak eta kualifikatuak izan daitezen; zerbitzu publiko eraginkor eta berritzailea bermatuz. IVAPen misioarekin lotuta dago, eta enplegatu publikoen prestakuntza eta garapena bultzatzen ditu, baita ikuskerarekin ere, IVAP erreferente gisa kokatzen baitu administrazio publikoen profesionalizazioan, eraldaketan eta elebitasunean. Azkenik, balio gisa, berrikuntza, gardentasuna eta administrazio publikoen arteko lankidetzak sustatzen du.

#### **1.1. Hirigintza-arloko profesionalen prestakuntza (EVETUren programaren bidez):**

Dirulaguntza-ildo honek hirigintzako eta lurralde-antolamenduko profesionalen prestakuntza bultzatzen du; eremu publiko zein pribatuko adituen eskutik ikasitakoa ingurune errealean aplikatzeko aukera zabalduz, diruz lagundutako praktiken bitartez.

#### **1.2. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza eta talentuaren**

**garapena:** Ildo horrek askotariko gaitasunak garatzeko prestakuntza sustatzen du, langile publikoak euskal administrazio publikoaren erronketara egokitzen direla bermatuz.



**2. Gobernantza eta jakintza estrategikoa:** ardatz honek ikerketa eta jarduera akademikoak sustatzen ditu, EAEko kudeaketa publikoaren osagaiak eta eragileak hobetzeko. IVAPen misioarekin lotuta dago, aholkularitza, laguntza teknikoa eta berrikuntza bultzatzen baititu. Bat dator ikuskerarekin, IVAPen erreferentziazko izaera indartzen baitu, Gobernantza eta erakundeen modernizazioa bultzatuz. Balioen artean, gardentasuna eta jakintzaren zabalkundea nabarmentzen dira.

**2.1. Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia izanik edo hori aztertze eta sakontzeko balioa izanik hainbat aztertze-ikuspuntutatik egindako monografia-ikerlanetarako:** dirulaguntza-ildo honek aintzatespena ematen die arlo zehatz batzuen inguruko ikerketei (hala nola: Euskal Autonomia, euskal autogobernua, zein hainbat erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa), ezagutza estrategikoa ematen duten monografia berritzaileak sarituz.

**2.2. Administrazio publiko, zuzenbide publiko edo administrazio-zientziarekin lotutako gaiei buruzko ikerketa sustatzeko laguntzak:** Ildo honek zuzenbide publikoko eta administrazio-kudeaketako ikerketa aplikatua bultzatzen du, euskal administrazioa modernizatzeko irtenbide berritzaileak eskaintzen dituzten azterlanak finantzatuz.

Kontzeptu hauek modu zabalagoan azaltzen dira honako eranskin hauetan:

- **I.I eranskina:** **Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren ardatz eta ildoak Plan Estrategikoaren helburuekin lotzea.** Eranskin honetan, DPEko ardatz estrategiko eta dirulaguntza-ildo bakoitza PEko *helburu estrategiko*, *ekintza zehatz* eta *ebaluazio-adierazleekin* lotzen da.
- **I.II eranskina:** **Dirulaguntza-ildoen aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren banaketa.** Dokumentu honetan, DPEko dirulaguntza-ildo bakoitzerako aurreikusitako aurrekontu-konpromisoak zehazten dira, baita finantzaketaren ehunekoen banaketa ere.
- **I.III eranskina:** **Dirulaguntza ildoen xede-sektoreak eta dirulaguntzen kudeaketa-prozedurak.** Eranskin honetan, DPEko ildo bakoitzaren xede-sektorea identifikatzen da, eta horretarako erabiliko diren dirulaguntza-prozedura zehatzak zehazten dira.

## 4. Gauzatzeko epeak

Oro har, urtebete izango da dirulaguntzak gauzatzeko, eta urte naturala izango da justifikaziorako hautatuko den aldia.

Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan, IVAPen programa batzuek gauzatzeko epe hori gainditzea eskatzen dute, programak laguntzen duen jardueraren –edo haren arlo materialaren– inguruabarrak direla-eta.



Horrelakoetan, bai dirulaguntza antolatzea ahalbidetzen duten aurrekontu-partidek, bai dirulaguntzen deialdiak osatzen dituzten arauak espresuki jasotzen dituzte dirulaguntza gauzatzeko epea urtebete baino gehiagokoa izateko beharrezkoak diren zehaztapenak, eta esplizitatu egiten dute epea luzeagoa izango dela.

## 5. Ordainketa aurreratua

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 34. artikulua honako hau xedatzen du: «Kopuru batzuk aurreratuta ordaindu ahal izango dira orobat; hau da, justifikazioa aurkeztu baino lehen ere ordaindu ahal izango dira, finantzaketa hori beharrezkoa baldin bada dirulaguntzaren helburu diren jarduerak aurrera eramateko. Aukera hori eta bermeen erregimena dirulaguntza arautzen duen araudian aurreikusi beharko da espresuki». Deialdien oinarrietan, kopuru batzuk aurrez ordaintzeko aukera xedatu ahal izango da, dirulaguntza motaren finantzaketa-beharren, onuradunen, eta jarduketa publiko guztiak gidatu behar dituzten eraginkortasun eta efizientzia printzipioen arabera.

## 6. Planaren indarraldia, jarraipena eta ebaluazioa

DPE honen indarraldiari dagokionez, DAELak (6. artikulua 1. puntuaren 3. paragrafoa) ezartzen du DPEek lau urteko indarraldia izango dutela, salbu eta barne hartzen dituzten jarduketan izaeragatik epe luzeagoa eskatzen bada; eta adierazten du inguruabar hori behar bezala arrazoituta egon beharko dela DPEen dokumentuan bertan. Horrela, IVAPeko DPEk lau urteko indarraldia du.

Plan honen indarraldia lau urtekoa den arren, jarraipena urtero egingo da, Plan Estrategikoaren ebaluazioarekin batera; eta, hala behar izanez gero, berrikusi eta eguneratu egingo da. Eguneratzea, egiten den kasuetan, ekitaldi bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen egingo da, EAEko Aurrekontu Orokorren Legeetan ezarritakoa aintzat hartuta.

Plan hau aplikatetik eratorritako emaitzak IVAPek kontrolatu eta ebaluatuko ditu.

## 7. Onestea eta argitaratzea

IVAPek DPE onartuko du, IVAPen egitura eta eginkizunak arautzen dituen 133/2021 Dekretuak esleitzen dizkion eskumenekin bat eginik.





## 8. Aurreko urteetako adierazleen konparaketa eta plan berriaren egokitzapena

Jarraian, aurreko urteetako adierazleak alderatzen dituen taula bat aurkezten da. Konparaketa hori urtez urtekoa izan da, eta aurreko Plan Estrategikoen egiturari dago lotuta. Hala ere, kontuan izan behar da Plan Estrategiko berriak egitura desberdina duela, eta horrek esan nahi du adierazle berriak erabiliko dituela helburuak eta ekintzak neurtzeko. Ondorioz, hurrengo taulan aurkeztutako helburu eta adierazleak ez datoz bat etorkizuneko egiturara egokitutako PE eta DPE berriekin.



## Aurreko urteetako adierazleak alderatzen dituen taula

			Aurreikusi takoa	Egindakoa	Aurreikusi takoa	Egindakoa	Aurreikusi takoa	Egindakoa	Aurreikusi takoa	Egindakoa	Aurreikusi takoa	Egindakoa	Aurreikusi takoa	Egindakoa		
			2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025							
<b>1. HE</b>	1. lldoa	Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak	1. adierazlea: prestakuntza-planen kopurua	47	40	33	28	33	28	30	31	32	26	30	25	30
			2. adierazlea: parte-hartzaileen kopurua	70.000	89.000	61.000	78.000	70.000	79.000	80.000	79.000	82.000	85.500	86.000	81.000	82.000
			3. adierazlea: programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	175	145	160	102	100	79	100	96	120	58	60	46	60
<b>2. HE</b>	1. lldoa	Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko dirulaguntzak (toki administrazioa)	dirulaguntzaren xede diren ordezkapenen kopurua	10	2	10	5	10	2	10	0	10	0	0	0	0
<b>3. HE</b>	1. lldoa	Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia izanik edo hori aztertze eta sakontze balioa izanik hainbat aztertze-ikuspuntutatik egindako monografia-ikerlanetarako saria	Sari kopurua	2	0	2	1	2	2	2	0	2	0	2	1	2
	2. lldoa	Administrazio publiko, zuzenbide publiko edo administrazio-zientziarekin lotutako gaiei buruzko ikerketa sustatzeko laguntzak.	Deituko diren laguntzak	2	2	2	2	2	2	2	0	2	0	2	0	2
<b>4. HE</b>	1. lldoa	Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko	Praktiketako ikasleen kopurua	9	6	9	8	9	6	9	3	9	0	9	2	9



## I.I eranskina

# Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren ardatz eta ildoak Plan Estrategikoaren helburuekin lotzea

**Organoa:** Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP)

**Programa:** 1216 Administrazio publikoetako langileak hautatu eta prestatzea

### 1. ardatza: Prestakuntza estrategikoa, Administrazio Publiko eraginkorraren oinarri

Ardatz honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren profesionalizazioa sustatzen du, administrazioa osatzen duten pertsonak prestatuak eta kualifikatuak izan daitezen eta zerbitzu publiko eraginkor eta berritzailea bermatzen.

IVAPen Plan Estrategikoarekin lotura:

- Misioa: Etengabeko prestakuntza eta garapena bultzatzen du.
- Ikuskera: IVAP erreferentetzat hartzen du administrazio publikoaren profesionalizazioa, eraldaketan eta elebitasunean.
- Baloioak: Berrikuntza, gardentasuna eta administrazioen arteko lankidetzak sustatzen ditu, eta gizartearen beharrei erantzutera bideratzen ditu.

#### 1.1 Dirulaguntza lerroa: Hirigintzaren arloko profesionalen prestakuntza (EVETUren programaren bidez)

Dirulaguntzen lerro honek hirigintzako eta lurralde-antolamenduko profesionalen prestakuntza bultzatzen du. Eremu publiko eta pribatuko adituen eskutik ikasitakoa, diruz lagundutako praktiken bidez, ingurune errealean aplikatzeko aukera zabaltzen da.

**Helburua:** Alde batetik, esperientzia praktikoaren bidez ezagutza aplikatzen laguntzea, eta, bestetik, hirigintzaren arloan administrazioen arteko lankidetzak sustatzea.

#### Funtsezko ekintzak

- **Deialdia egitea**, dirulaguntzak iragarritz.
- **Dirulaguntzak aitortzeko ebazpena argitaratzea**, hala badagokio.
- **Praktiken eragina ebaluatzea**, parte-hartzaileen trebakuntzan eta kudeaketa publikoaren hobekuntzan dakarren ekarpena aztertuz.

#### Adierazleak

- **Diruz lagundutako praktiken kopurua** (zenbat pertsonak jaso duten dirulaguntza).
- **Praktikaldia egoki amaitzen duten pertsonen ehunekoa.**
- **Erakunde hartzaileek praktiketako pertsonekin duten gogobetetze-maila.**
- **Praktiketako pertsonen gogobetetze-maila.**

#### Adierazleak ateratzeko metodologiak

- Parte-hartzaileen eta erakunde hartzaileen gogobetetze-inkestak eta autoebaluazioa.
- Administrazio laguntzaileek egindako jardueren txostenak aztertzea.
- Ebaluazio kualitatiboak, elkarrizketen eta foku-taldeen bidez.

#### 1.2. Dirulaguntza lerroa: Euskal administrazio publikoetako langileen prestakuntza eta talentuaren garapena

Lerro honek askotariko gaitasunak garatzeko prestakuntza sustatzen du, eta langile publikoak euskal administrazio publikoaren erronketara egokitzen direla bermatzen du.

**Helburua:** Enplegatutako publikoari dagozkien gaitasunak indartzea eta talentu publikoa profesionalizatzea, prestakuntza espezializatuaren bidez.

#### Funtsezko ekintzak

- **Dirulaguntzen deialdia egitea** (foru-aldundi eta toki-erakundeei zuzendutakoa).
- **Dirulaguntzak aitortzeko ebazpenak onartzea** (EHUrri, Osakidetza, Polizia eta Larraldietako Euskal Akademiari eta Hezkuntza Sailari dagozkienak).
- **Prestakuntza-planen eta onuradunen betebeharren jarraipena egitea.**

#### Adierazleak

- **Dirulaguntza jaso duten erakundearen kopurua**
  - Udal handien kopurua (20.001 biztanletik gorakoak)
  - Dirulaguntza guztien artean udal handiek jasotzen dutena (ehunekoa)
  - Udal ertainen kopurua (5.001 eta 20.000 biztanle artekoak)
  - Dirulaguntza guztien artean udal ertainek jasotzen dutena (ehunekoa)
  - Udal txikien kopurua (5.000 biztanle artekoak)
  - Dirulaguntza guztien artean udal txikiek jasotzen dutena (ehunekoa)
- **Egindako prestakuntza-plan kopurua**
- **Parte-hartzaile kopurua** (pertsonak)
- **Parte hartzen duten erakundearen gogobetetze-maila**

#### Adierazleak ateratzeko metodologiak

- Parte hartzen duten erakundeentzako galdetegiak.



**Organoa:** Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP)

**Programa:** 1216 Administrazio publikoetako langileak hautatu eta prestatzea

## 2. ardatza: Gobernantza eta jakintza estrategikoa

Ardatz honek Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa publikoaren osagaiak eta eragileak hobetzeko ikerketa eta jardura akademikoak sustatzen ditu.

IVAPen Plan Estrategikoarekin lotura:

- Misioa: Aholkularitza, laguntza teknikoa eta berrikuntza bultzatzen ditu.
- Ikuskera: IVAPen erreferentzialtasuna indartzea, gobernantza eta modernizazio instituzionala bultzatuz.
- Balioak: Gardentasuna eta jakintzaren zabalkundea zerbitzu publikoan.

### 2.1 Dirulaguntza lerroa: Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia duten edo aztertzeke eta sakontzeko balioa duten analisi-ikuspegi desberdinetatik egindako ikerketa-lan monografikoei.

Lerro honek aintzatespena ematen die esparru jakin batzuetan egindako ikerketei (hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal autogobernaren edo gobernantza publikoan hainbat eronkari aurre egiteko) eta ezagutza estrategikoa ematen duten monografia berritzaileak saritzen ditu.

**Helburua:** Euskal Administrazio Publikoarekin lotura estua duten hainbat arlotan ikerketa bultzatzea

#### Funtsezko ekintzak

- Sariaren deialdia urtero egitea, kalitate- eta inpaktu-irizpideak bermatuz.
- Saritutako lanak zabaltzea.
- Ikerlanek administrazioan duten eraginaren jarraipena egitea.

#### Adierazleak

- Deialdian aurkeztutako ikerlan kopurua.
- Aurkeztutako artean, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko egileak dituzten ikerlanen ehunekoa.
- Aurkeztutako artean, deialdian onartuak izateko baldintzak betetzen dituzten ikerlanen ehunekoa.
- Leizaola saria jaso duten ikerlan kopurua.
- Leizaola sariaren akzesita lortu duten ikerlan kopurua.
- Saria edo akzesita lortu gabe, epaimahaiaren argitalpen-proposamena jaso duten ikerlan kopurua.

#### Adierazleak ateratzeko metodologiak

- Epaimahaiaren balorazioaren azterketa
- Azterlan Zerbitzuaren azterketa kualitatiboa

### 2.2 Dirulaguntza lerroa: Administrazio publikoarekin, zuzenbide publikoarekin edo administrazio-zientziarekin zerikusia duten gaietan ikerketa sustatzeko laguntzak.

Lerro honek zuzenbide publikoan eta administrazio-kudeaketan aplikatutako ikerketa bultzatzen du, eta horretarako euskal administrazioa modernizatzeko irtenbide berritzaileak eskaintzen dituzten azterlanak finantzatzen ditu.

**Helburua:** Gobemantzarako eta Administrazioa modernizatzeko irtenbide berritzaileak ekarriko dituzten azterlanak sustatzea.

#### Funtsezko ekintzak

- Ikerketa-proiektuetarako dirulaguntzen deialdia egitea urtero
  - Unibertsitateen, ikerketa-zentroen eta administrazio publikoen arteko lankidetzak
- Proiektuen jarraipena egitea eta eragina ebaluatzea
  - Dirulaguntzaren izaeraren inguruan hausnarketa egitea (eraginkortasuna bilatuz)
  - Proiektuen lurreratzea aztertzea; politika publikoetan txertatzea edo jarraipena ematea

#### Adierazleak

- Jasotako ikerketa-proiektu kopurua.
- Ikerketa-taldean aurkeztutako proiektu kopurua.
- Banakako modalitatean aurkeztutako proiektu kopurua.
- Eskainitako laguntza bakoitzeko deialdian onartutako proiektu kopurua.
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ikertzaileak dituzten proiektuen ehunekoa.
- Deialdian onartuak izateko baldintzak betetzen dituzten proiektuen ehunekoa.
- Jasotako ikerketa-proposamenen batez besteko balorazioa.
  - Ikerketa-proposamenen interesa (batez besteko balorazioa)
  - Ikerketa-proposamenen kalitatea (batez besteko balorazioa)
  - Ikerketa-proposamenen bideragarritasuna eta metodologia (batez besteko balorazioa)
  - Ikerketa-proposamenen argitasuna, zuzentasuna, ordena eta egitura (batez besteko balorazioa)
  - Proiektuetan genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzea (batez besteko balorazioa)
- Egindako ikerketa-proposamenetatik, dirulaguntza (lehen ordainketa) jaso duten ikerketa-proposamenen ehunekoa.
  - Banakakoei esleitutako laguntzen ehunekoa
  - Taldeei esleitutako laguntzen ehunekoa
- Dirulaguntza (lehen ordainketa) jaso duten ikerketa-proposametatik egindako ikerlan/monografia kopurua.
- Dirulaguntza osoa (20.000 euro) jaso duten ikerlan/monografiaren ehunekoa.
  - Dirulaguntza osoa lortu duten banakako ikerlan/monografiaren ehunekoa
  - Dirulaguntza osoa lortu duten taldekako ikerlan/monografiaren ehunekoa
- Dirulaguntza osoa (20.000 euro) jaso duten ikerlan/monografiaren batez besteko puntuazioa.
- Aurkeztutako ikerlanak/monografiak kontuan hartuta, esleitutako laguntzen ehunekoa.
  - Banakako ikertzaileei esleitutako laguntzen ehunekoa (aurkeztutako ikerlanak/monografiak kontuan hartuta)
  - Taldekako ikertzaileei esleitutako laguntzen ehunekoa (aurkeztutako ikerlanak/monografiak kontuan hartuta)
- Genero-ikuspegia eta intersektionalitatea kontuan hartu dituzten ikerlanen/monografiaren ehunekoa.

#### Adierazleak ateratzeko metodologiak

- Azterlan Zerbitzuaren balorazioa (eta, hala badagokio, adituena)



## I.II eranskina

# Dirulaguntza ildoen aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren banaketa

**Organoa:** Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP)

**Programa:** 1216 Administrazio publikoetako langileak hautatu eta prestatzea

### 1. ardatza: Prestakuntza estrategikoa, Administrazio Publiko eraginkorraren oinarri

Ardatz honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren profesionalizazioa sustatzen du, administrazioa osatzen duten pertsonak prestatuak eta kualifikatuak izan daitezzen eta zerbitzu publiko eraginkor eta berritzailea bermatzeko.

IVAPen Plan Estrategikoarekin lotura:

- Misioa: Etengabeko prestakuntza eta garapena bultzatzen du.
- Ikuskera: IVAP erreferentzetan hartzen du administrazio publikoaren profesionalizazioa, eraldaketan eta elebitasunean.
- Balioak: Berrikuntza, gardentasuna eta administrazioen arteko lankidetzak sustatzen ditu, eta gizartearen beharrei erantzutera bideratzen ditu.

#### 1.1 Dirulaguntza lerroa: Hirigintzaren arloko profesionalen prestakuntza (EVETUren programaren bidez)

Dirulaguntzen lerro honek hirigintzako eta lurralde-antolamenduko profesionalen prestakuntza bultzatzen du. Eremu publiko eta pribatuko adituen eskutik ikasitakoak, diruz lagundutako praktiken bidez, ingurune errealean aplikatzeko aukera zabaltzen da.

**Helburua:** Alde batetik, esperientzia praktikoaren bidez ezagutza aplikatzen laguntzea, eta, bestetik, hirigintzaren arloan administrazioen arteko lankidetzak sustatzea.

Urtea	2025		2026		2027		2028		
	Datu mota	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	30.800,00 €								
7. kapitulua	-		% 100						
<b>Guztira</b>	<b>30.800,00 €</b>								

#### 1.2. Dirulaguntza lerroa: Euskal administrazio publikoetako langileen prestakuntza eta talentuaren garapena

Lerro honek askotariko gaitasunak garatzeko prestakuntza sustatzen du, eta langile publikoak euskal administrazio publikoaren erronketara egokitzeko direla bermatzen du.

**Helburua:** Enplegatu publikoek dagozkien gaitasunak indartzea eta talentu publikoaren profesionalizazioa, prestakuntza espezializatuaren bidez.

Urtea	2025		2026		2027		2028		
	Datu mota	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	1.508.730,00 €								
7. kapitulua	-		% 50						
<b>Guztira</b>	<b>1.508.730,00 €</b>								

### 2. ardatza: Gobernantza eta jakintza estrategikoa

Ardatz honek Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa publikoaren osagaiak eta eragileak hobetzeko ikerketa eta jardura akademikoak sustatzen ditu.

IVAPen Plan Estrategikoarekin lotura:

- Misioa: Aholkularitza, laguntza tekniko eta berrikuntza bultzatzen ditu.
- Ikuskera: IVAPen erreferentzialtasuna indartzea, gobernantza eta modernizazio instituzionala bultzatuz.
- Balioak: Gardentasuna eta jakintzaren zabalkundea zerbitzu publikoan.

#### 2.1 Dirulaguntza lerroa: Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia duten edo aztertze eta sakontze balioa duten analisi-ikuspegi desberdinetatik egindako ikerketa-lan monografikoei.

Lerro honek aintzatespena ematen die esparru jakin batzuetan egindako ikerketek (hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal autogobernua edo gobernantza publikoan hainbat eronkari aurre egiteko) eta ezagutza estrategikoa ematen duten monografia berritzaileak saritzen ditu.

**Helburua:** Euskal Administrazio Publikoekin lotura estua duten hainbat arlotan ikerketa bultzatzea.

Urtea	2025		2026		2027		2028		
	Datu mota	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	30.000,00 €								
7. kapitulua	-		% 50						
<b>Guztira</b>	<b>30.000,00 €</b>								

#### 2.2 Dirulaguntza lerroa: Administrazio publikoekin, zuzenbide publikoekin edo administrazio-zientziarekin zerikusia duten gaietan ikerketa sustatzeko laguntzak

Lerro honek zuzenbide publikoan eta administrazio-kudeaketan aplikatutako ikerketa bultzatzen du, eta horretarako euskal administrazioa modernizatzeko itenbide berritzaileak eskaintzen dituzten azterlanak finantzatzen ditu.

**Helburua:** Gobernanzarako eta Administrazioa modernizatzeko itenbide berritzaileak ekarriko dituzten azterlanak sustatzea.

Urtea	2025		2026		2027		2028		
	Datu mota	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
4. kapitulua	40.000,00 €								
7. kapitulua	-		% 100						
<b>Guztira</b>	<b>40.000,00 €</b>								



## I.III eranskina

# Dirulaguntza ildoen xede-sektoreak eta dirulaguntzen kudeaketa-prozedurak

**Organoa:** Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP)

**Programa:** 1216 Administrazio publikoetako langileak hautatu eta prestatzea

### 1. ardatza: Prestakuntza estrategikoa, Administrazio Publiko eraginkorraren oinarri

Ardatz honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren profesionalizazioa sustatzen du, administrazioa osatzen duten pertsonak prestatuak eta kualifikatuak izan daitezten eta zerbitzu publiko eraginkor eta berritzailea bermatu dezaten.

IVAPen Plan Estrategikoarekin lotura:

- Misioa: Etengabeko prestakuntza eta garapena bultzatzen du.
- Ikuskera: IVAP erreferentetzat hartzen du administrazio publikoaren profesionalizazioa, eraldaketan eta ebleitasunean.
- Baloioak: Berrikuntza, gardentasuna eta administrazioen arteko lankidetzaren sustatzea, eta gizartearen beharrei erantzutea bideratzen ditu.

#### 1.1 Dirulaguntza lerroa: Hirigintzaren arloko profesionalen prestakuntza (EVETUren programaren bidez)

Dirulaguntzen lerro honek hirigintza eta lurralde-antolamenduko profesionalen prestakuntza bultzatzen du. Eredu publiko eta pribatuko adituen eskutik ikasitakoa, diruz lagundutako praktiken bidez, ingurune errealean aplikatzeko aukera zabaltzen da.

**Helburua:** Alde batetik, esperientzia praktikoen bidez ezagutza aplikatzen laguntzea, eta, bestetik, hirigintzaren arloan administrazioen arteko lankidetzaren sustatzea.

**Xede sektorea** Hirigintzako ikastaro bat egin eta erakunde eta/edo enpresetan praktikak egitea erabaki duten ikasleak.

**Emateko prozedura** EVETUren osakerari, funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko Dekretuak<sup>1</sup> ezartzen du EVETUren helburuak direla lurralde-antolamenduari eta hirigintzaren arloko prestakuntza eta hobekuntza. Hori oinarri hartuta, urtero, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, hirigintzako ikastarorako deialdia egiten da, eta ikastaro hori aukerako praktikaldi batekin osatu ahal izango da. Deialdi horretan zehazten dira praktikaldiaren ezaugarriak (praktika-erakundeak, eskabideak aurkezteko modua eta epea, onuradunen betebeharrak, etab.).

<sup>1</sup>180/1986 Dekretuaren 3. artikulua

#### 1.2. Dirulaguntza lerroa: Euskal administrazio publikoetako langileen prestakuntza eta talentuaren garapena

Lerro honek askotariko gaitasunak garatzeko prestakuntza sustatzen du, eta langile publikoak euskal administrazio publikoaren errotetara egokitzeko bideratzen ditu.

**Helburua:** Enplegatu publikoek dagozkien gaitasunak indartzea eta talentu publikoaren profesionalizazioa, prestakuntza espezializatuen bidez.

##### a) Dirulaguntza izendunak

UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatea  
Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa  
Polizia eta Lurralde-antolamenduko Euskal Akademia (langileen prestakuntzan hain dagozkion planak eta programak sustatzeari dagozkionez)  
Hezkuntza Saila (irakasleentzako planak eta programak sustatzeari dagozkionez)

##### b) Foru-aldundi eta toki-erakundeek zuzendutako dirulaguntzak

EAEko toki-administrazioak (udalak, mankomunitateak eta koadrilak)  
EAEko foru-administrazioak

**Emateko prozedura** Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legeak<sup>1</sup> ezartzen du IVAPen eskumenen artean dagoela euskal administrazio publikoetako enplegatu publikoaren etengabeko prestakuntza finantzatzeko funtsen kudeaketa.

<sup>1</sup>1 abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 22. artikulua

133/2021 Dekretuaren 22. artikulua ezartzen duenez, IVAPek, bere helburuak betetzeko, bekak edo beste laguntza batzuk eman ahal izango ditu, bai eta beste sustapen-neurri batzuk hartu ere.

##### a) Dirulaguntza izendunak

Dirulaguntza hauek aurrekontuan jasota daude, eta, ondoren, izendatutako lau erakundeei esleitzen zaizkie, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez (20/2023 Legearen 28. artikulua, Dirulaguntzen araubidea erregulatzen duena).

##### b) Foru-aldundi eta toki-erakundeek zuzendutako dirulaguntzak

Urtero egiten da deialdia, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez (20/2023 Legearen 20-27 artikulua). Deialdi horretan bertan zehazten dira prozeduraren baldintzak.

### 2. ardatza: Gobernantza eta jakintza estrategikoa

Ardatz honek Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa publikoaren osagaiak eta eragileak hobetzeko ikerketa eta jardura akademikoak sustatzen ditu.

IVAPen Plan Estrategikoarekin lotura:

- Misioa: Aholkularitza, laguntza teknikoa eta berrikuntza bultzatzen ditu.
- Ikuskera: IVAPen erreferentzialtasuna indartzea, gobernantza eta modernizazio instituzionala bultzatzea.
- Baloioak: Gardentasuna eta jakintzaren zabalkundea zerbitzu publikoan.

#### 2.1 Dirulaguntza lerroa: Jesús María Leizaola saria, Euskal Autonomiarekin zerikusia duten edo aztertze eta sakontze balioa duten analisi-ikuspegi desberdinetatik egindako ikerketa-lan monografikoei.

Lerro honek aintzatespena ematen die esparri jakin batzuetan egindako ikerketek (hala nola Euskal Autonomia Erkidegoan, euskal autogobernuan edo gobernantza publikoan hainbat eronkari aurre egiteko) eta ezagutza estrategikoa ematen duten monografia berritzaileak saritzen ditu.

**Helburua:** Euskal Administrazio Publikoarekin lotura estua duten hainbat arlotan ikerketa bultzatzea.

**Xede sektorea** Sarira aurkez daitezke edozein ikuspegi zientifikotatik egindako eta argitaratu gabeko monografia ia zera duten ikerlanak, euskaraz zein gaztelaniaz idatzitakoak. Ikerlan horien xedea honako hau izango da:

##### a) Euskal Autonomia Erkidegoa, euskal autogobernua, EAEko lurralde-antolamendua.

**b) Eta/edo Gobernantza publikoa, globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren eronkari edo XXI. mendeko politika publikoaren garapenean eragina duten beste eronkari batzuei aurre egiteko.**

Pertsona fisikoak edo propio sortutako lantaldeak aurkez daitezke sarira.

**Emateko prozedura** 133/2021 Dekretuaren 22. artikulua ezartzen duenez, IVAPek, bere helburuak betetzeko, bekak edo beste laguntza batzuk eman ahal izango ditu, bai eta beste sustapen-neurri batzuk hartu ere. Hortik ondorioztatzen dira Jesús María Leizaola sariak eta ikerketa-bekak (hurrengo laguntza-lerroa).

Sariaren deialdia urtero egiten da, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, eta ebazpen hori EHAAn argitaratzen da. Bertan, prozesuaren xehetasunak jasotzen dira (ezaugarriak, baldintzak, epeak, etab.).

#### 2.2 Dirulaguntza lerroa: Administrazio publikoekin, zuzenbide publikoekin edo administrazio-zientziarekin zerikusia duten gaietan ikerketa sustatzeko laguntzak

Lerro honek zuzenbide publikoan eta administrazio-kudeaketa aplikatutako ikerketa bultzatzen du, eta horretarako euskal administrazioa modernizatzeko irtenbide berritzaileak eskaintzen dituzten azterlanak finantzatzen ditu.

**Helburua:** Gobernanzarako eta Administrazioa modernizatzeko irtenbide berritzaileak ekarriko dituzten azterlanak sustatzea.

**Xede sektorea** Dirulaguntzen helburua da Administrazio publikoaren, zuzenbide publikoaren edo administrazio zientziaren inguruko ikerketa sustatzea, eta ikerketa-taldeak aurkez daitezke.

**Emateko prozedura** Sariaren deialdia urtero egiten da, IVAPeko zuzendariaren ebazpen bidez, eta ebazpen hori EHAAn argitaratzen da. Bertan, prozesuaren xehetasunak jasotzen dira (ezaugarriak, baldintzak, epeak, etab.).